

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

**Ekonomia Sustatzeko foru diputatuarean 2896/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 27koa, 2021eko Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i planeko diru-laguntzen programarako eskabideak aurkezteko epea luzatzea erabakitzen duena.**

*Aurrekariak*

*Lehena:* Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluan apirilaren 13an bilduta, 34/2021 Foru Dekretua onartzeko erabakia hartu zuen. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari osoko laguntza emateko 3i planaren dirulaguntzen programaren oinarriak eta deialdia onartu ziren. Onuradun izateko baldintzetako batean euskarazko testuan nahigabeko akats bat ikusi ondoren, zuzendu egin da 4. oinarria, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 28ko 2896/2021 foru dekretuaren bidez. Honela gaztelaniazko testuaren baliokidea egin da.

*Bigarrena:* Zuzendutako akatsak kalteak eragin diezazkiekeen interesdun pertsona eta enpresei, baldin eta haiek irakurtzen badituzte, edo ulertzen badute baldintzak betetzen zituztela edo ez zituztela betetzen, eta, beraz, dirulaguntzaren onuradun izateko eskabidea egiteari uzten badiote, dirulaguntzen programarako eskaera-epeak luzatu behar dira.

*Oinarri juridikoak*

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoak Ekonomia Sustatzeko diputatuari ahalmena ematen dio foru dekretua garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Hori guztia oinarri hartuta, ebazpen-proposamen hau egin dizugu:

**EBAZPENA:**

*Lehenengoa:* Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretuaren bidez araututako Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari osoko laguntza emateko 3i 2021 planaren diru-laguntzen programako eskabideak aurkezteko epea luzatzea. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 14ko 13:30ean amaituko da.

*Bigarrena:* Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bilbon, 2021eko apirilaren 27an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,  
AINARA BASURKO URKIRI